

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko apirilak 10 / II. urtea / 19. zenbakia

Almadiak: ogibide zaharra ikasgai

Bi hormetara




JOSETXO AZKONA

Baga.— Urte batzuk daramazkite Iruñetik Aralarerako goibideetan barna, lehen Durango eta, orain Iurretako txoriaren irudi eta mintzoak gureganatzen. Ez dira Amatiño eta bere koadrilakoak bezain ezagunak, baina, seguru asko, dagoeneko horren familiarak bihurtu zaizkigun burusoila eta beste aurpegi omentuak nortzu ote diren galdezka ibiliko ginen oraino, haien lana hor ez balitz: gehienetan ez ditugu erreparatu ere egiten. Hala ere, orain bi aste botoia sakatu eta irudirik ez ikustean, haien beharra nabaritu zuen batek baino gehiagok. Ospe guzietatik aparte finki dihardute, gu pantaiari begira gaudenetan 625 lerroetako bakoitza ahal den garbien gure etxera helezteko. Halaber, isillean aritzea omen dute gogoko, eta uhin hertzianoak dakiten guzia opatzen digute, ordainez deus eskatu gabe. Haien lana ez dago kodifikatzerik. Nafarroatik eta Euskal Telebistaren auzi lotsagarriaz ari garela, inori badagokio txaloak jotzea, txalorik bizienak teknikari ezezagun horiei!...

Biga.— Ezin zuhurrago azaldu du Alli jaunak, kontu honetaz eta bestez luzatu dioten eskakizun xorta bati idatziz erantzuterakoan: «Ez dago euskari legalik Euskal Telebista Nafarroan zilegi ikusi ahal izateko». Hara non, hontaz eta hartaz hain berritsu eta suharra dugun lehendakari, presidentea eta diputazioko buruak bi lerro eskasetan ebatzi duen bai kalean bai parlamentuan hamaika aldiz aldarrikatu izan den eskea. Itxura guzien arabera, oraingo honetan txukunki jokatu nahi du gure gorengo ordezkariak lege araukin. Finean, Urralburuk bezala Allik ere legeari zor dio estuki eta legeak agintzen duena baino ez du be-tearaziko. Bien bitartean, hemendik eta handiko telebistakateek gainezka egin dute gure aparailuetan, guregaraino iristeko zein legetan sustraitzen diren inori bost axola zaiolarik.

Higa.— Hogeitairu puntutan bildurik, egitamu zabala aurrean ezarri dute "Oinarriak-ek", euskera inoiz normalduko bada, Administrazioak egin behar lukeen lana ongi erakutsiz. Eskariak gizartearen alor ezberdinetatik etorri dira, ondorean administrazioak atalez-atal erantzun dezan. Telebistari buruzkoa goian aipatu dugu eta zer pentsa eman beharko liguke: ez dutela gogo ttipirik ere barruti honetan ofizialki begietsi ahal izateko. Irratien kontua plazaratzean, antzeko ondorioetara ere iritsiko ginatke, agintarien jokabidea nolakoa izan den aztertu eta gero. Zer egin, bada, horren bidezko eta zentzuzkoak diren eskaerei baiezkota eman diezaieten? Nola jokatu, hitz gutxitan, uhinetako piratak izatearen zama izorrrantea askatzeko?... Zera esanen nuke nik: eskaera horiei lehentasuna eman behar zitzaizela, proposamenaren aldeko indarrak batuz, gogo batez eta beroz borrokatzen jarraitzeko; partida, berriro ee galtzeko bidean litekeela alde aurretik jakin arren.



Espainiako Armadak, XVIII. mende aldera, egurraren zuen beharra Huesca eta Kataluniako basoetan ase ezinean zebilelarik, Nafarroakoei erreparatu zien. Horren inguruan sortutako komertzio eta industria handiak bizibide berria sortu zuen bertako ibarretan, egurra Zaragozara eramateko.

Almadiak, horrela, ohizkoak egin ziren Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkarin, eta beraiekin batera diru iturria garrantzizkoa heldu zen zonaldera. Urtegiak eta errepideen hobekuntzak, baino, traba gaindiezina izan ziren almadiendako, eta azkena Erronkaritik jeitsi zen 1952an.

Orain sortu berri den Nafarroako Almadieroen Elkartek dagoen material bilketari ekin dio gogoz, eta Burgin eskola bat paratu du martxan, bertako gazteek beren aitonen bizimodua ikas dezaten. Luze gabe, beste almadia berri bat jeitsiko da Eskatik.

Barnean

IRRATIAK



Euskalerrria irratia-
rean auzian ustelkeria
salatu dute / III

MUSIKA



Drogas ek bere
lehen diska
aurkeztu du / VIII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Euskararen iraupena Nafarroako gaztelaren deitutako erakusketa ikusgai dago Tafallako Kultur Etxean apirilaren 15a arte. Erakusketa honek, euskarak nafar herri erdaldunetako gaztelaren utzi dituen aztarnak aurkeztzen ditu alorrez-alor. Alor bakoitza panel desberdinetan sailkatuta azaltzen da ondorengo gai unitateetan: etxea, landareak, abereak, senda belarrak, eta abar.

Ana Irurtzun, Maria Jesus Arilla, Mercedes Martí, Maria Jose Garcia, Maria Jesus Talavera eta Ana del Olmo artisten lanak ikus daitezke Barañaingo Udalak duen erakusketa aretoan, datorren asteko igandera arte, hilak 19.

EKITALDIAK




Apiril Kulturala 1992 izenburupean ekintza ugari prestatu dituzte egun hauetarako Ultzaman, bertako udalaren Kirol eta Kultura patronatoak antolatutako. Pasa den igandean hasi ziren ekitaldi hauek eta asteburu honetan ere gauza dexente egongo da. Lesakako bertsolari gazteen saioa izango da gaur eguerdian, 14.30etan, euskaraz ikasten duten haurrentzat. Bihar, berriz, hilak 11, Azkona taldea arituko da arratsaldeko lauretan eta ondoren berendu goxoa eskainiko da hara inguratzen diren ume guztientzat. Gaueko 12.00etan, berriz, Izugarri folk taldearen musika

Lana harana Erdi Arotik da udal entitate bakarra, 1281an bere foruak berritu ondoren. Enrique IVren armadak zeharo suntsitu zuen 1461 aldera.

Lokitzeko mendizerraren magalean, paraje ederrak bisita daitezke bertatik, eta aintzinako ohituren gordeleku bitxia da Lana harana, bertan aurki baitaitezke oraindik azken ikazkinak.

Bilorian San Andreseko eliza ikus daiteke, XVI. mendekoa. Halaber, hor daude San Blas eta Santa Quiteriako basilizak. Lehendabizikoa, herritik ordu laudenera. Bigarrena, Lokitzetan bertan, bi ordutara.

Ulibarri, Galbarra, Narkue, Gastiainetik Arnaba mendirako ibilbidea egin daiteke. Bertatik atera eta ordu bat t'erdietako ibilbide egin ondoren, Lokitzetik barna paseo ederra emateko aukera polita, bide ez oso ezagunak eta bakartiak. Jende pilaketatik urrun.



Dagoeneko ia desagertuta, ikatza zen bertako bizibide garrantzikoenetakoa. Ikatza mendian egiten zen, borobil batean.

Bertan paratzen ziren enborrak eta adarrak, lurrez estalirik, eta, egun batzutan erre ondoren, egurra ikatza bihurtzen zen.

saioa izango da, Sasondo jate-txean. Igandea kirolaren eguna izango da, pilota partiduekin batipat. Haien ondorengo arteaniaren erakusketa ere izango da Ultzaman.

Bertso afaria izango da gaur gauean Goizuetako Umore Ona elkartearen. Horretarako, afaltzeko, baina batez ere, bertsoak botatzeko, Iñaki Murua eta Jon Maia bertsolari gipuzkoarrak gonbidatu dituzte. Bertako ema-

kumeek antolatu dute ekitaldi hau, eta parte hartu nahi duen guztiak alde aurretik abisua eman behar du.

MINTZALDIAK



Peru: Giza Eskubideak beldur giro batean izeneko mintzaldia eskainiko du gaur ostirala, arratsaldean Rafael Sanchezek, Herri Peruarrekiko Elkartasun Batzordeko kideak. Amnesty

International erakundeak antolatu du hitzaldia, Hizkuntz Eskolako aretoan izango dena, Kaldereria kalean, arratsaldeko zazpi t'erdietan.

Ipar Euskal Herriko hauteskundeak ondorengo azterketa egiteko Ritxard Irazusta eta Jakes Saharriet EMA-EBko kideak izanen dira gaur ostiralean, arratsaldeko zazpi t'erdietatik aurrera Iruñeko alde zaharreko Zaldiko Maldiko elkartearen.

ERRAN DUTE

Gobernu honek ez dauka ahultasuna, joku politikorako gaitasuna baizik».

Miguel Sainz
Presidente ordea

«Aizpunek 36ko gerra irabazi zuen».

Jose Antonio Urbiola
NBBko presidentea

«Gustokoa dut Osasunako presidentea izatea, eta horregatik aurkeztuko naiz berriro hauteskundeetara».

Fermin Ezkurra
Osasunako presidentea

«'Hi, kakazu, hilko ez haiz ba orain' esan nion nere buruari kamioia urpean zegoela».

Joaquin Navajas
Gidaria

ASTEKO PERTSONAIK

Xabier Silveira



Bertsolaria

Julian Gorospe



Txirrindularia

Carlos Garaikoetxea



Politikaria

Bera eta Estixu bere bertso laguna ziren nobedadeak joan den igandean jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketan, baina Xabier finalaren animatzaile hoberena izan zen, bertan izan zirenen irudiko. Lehendabizikoa agurrean eman zuen jada zer esanik, marrazki bizidun japoniar ezagunen musikarekin egin bait zuen, baina horretaz aparte, zentratuta eta oso fina ibili zen ekitaldian zehar. Gaietan sartuta, finean. Azkenean bostgarrena, baina hori gutxienezkoa da. Garrantzikoena, bertsolari dohai guztiak badituela. Geroak erranen.

Mañariakoa Banesto talde nafarraren gizonik indartsuenetakoa izan da denboraldi honen estrainean. Bernard frantziarrekin batera heldu zen joan den larunbatean Nafarroako Sariaren helmugara eta berari eman zioten garaipena, aspaldiko partez. Astelenean hasi zen Euskadiko Itzulian, bestalde, lehendabizikoa euskalduna zen Gorospe lerro hauek idazterakoan, eta bera zen bere taldeko faboritua. Txirrindulari bizkaitarra bere bizitza profesionalaren azken atarian dago, eta gustokoa luke bertan irabaztea. Horretarako laguntza ez zaio faltako.

Politikari nafarra EAKo presidentea izendatu zuten berriro bere alderdiak joan den asteburuan Donostian burutu zuen III. Kongresuan. Eztabaida handirik gabe, hurrengo urteetarako irizpide nagusiak erabaki zituen bertan alderdi abertzaleak, eta UEU eta «HBko alde batekin» biltzeko ahaleginak egiteko asmoa onartu zen ia aho batez. Asmo hauek hurrengo hauteskundeetara begira ditu paratuta alderdiak. Garaikoetxeak, bere hitzaldian, Euskal Herriko lurraldeak elkarrekin batean biltzeko beharra azpimarratu zuen, «jokuan bait dago euskaldunen superbibentzia bera».

ZINEMA



'Thelma eta Louise' filmak ikus daitezke gaur gaueko 10.30etan Leitzako zinemaren. Ridley Scottek zuzendutako pelikula famatu honek bi Oscar jasotzen ditu aurtengo edizioan, eta bere protagonistek 'aktorea onena sarirako izendaturik zeuden. Akzio film hau oso atsegina da eta originala da. Bestalde, igandeko arratsaldeko bostetan 'Bingo' pelikula ikusteko aukera dago Leitzako zinemaren. Igandeko arratsalde arina pasa nahi duenarentzat, komedia motako filma interesgarria.

MUSIKA



Tahures Zurdos, Satira, Sparato, Tijuana In Blue, Los Del Ray eta Rock DAM taldeek joko dute gaur ostirala, gaueko hamarretatik aurrera, Heavy Rock aldizkariak antolatu duen festaren barruan. Jaialdian bertan banatu nahi dituzte antolatzaileek aldiakariaren sariak.

Egan musika taldea arituko da bihar larunbata, hilak 11, Goizuetako pilotalekuan, Gipuzkoako DYAK antolatutako jaialdian. Giro ezin hobea nagusituko dela diote antolatzaileek, eta jende guztiari Goizueta aldera inguratzeko gonbidazioa luzatu diote.

Matraka, Patagonia, A Ras de Suelo eta Sepulcral Silencio taldeak arituko dira gaur ostirala gabeko bederatzietatik aurrera Hautsik anolatuta eta bertako frontoian izanen da kontzertua.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.3

Larunbatetan 9etatik 10etara... inguli Mangulu haurrentzako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.3

Egunero 13.00etatik 13.45etara... informazio Saioa Baztan Malerreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.3

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... autxori irratsaileentzako musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 83.5

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... uri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagunen eta pertsonai ospetsuen elkarrizketak.

Jarrera irekikoa eta independientea

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Bartolome de Carranza institutuak egindako inkestak familia, lana, ikasketak, sexoa, erlijioa, politika, aisialdia, kirola, eta antzeko gaien inguruan gazte nafarrek dituzten irizpide eta jarrerak aztertzen ditu. Horretarako 15 eta 25 urte bitarteko 1.603 gazte inkestatu ziren 1990-1991ko Gabonetan.

Nafarroan egiten den mota honetako hirugarren inkesta da, eta bertako emaitzak aurretik (1982an eta 1986an) lortutakoe-kin ere alderatzen dira, jarreraren segimendu zehatza egitearren.

Familia eta etxebizitzaren egoerari buruz, azpimarratzekoa da gazteen % 85 gurasoen etxean bizi dela, eta horietatik soilik % 15ek alde egin nahi duela. Halaber, gazteen gehiengoak positibotzat jotzen du gurasoek emandako heziketa edota orientazioa, baina gero eta helduagoa, orduan eta ezadostasun handiagoa dago heziketa honekin. Bitxia bada ere, inkestak garbi erakusten du gurasoek egindako kontrolak gora jo duela azken urteotan: 1986an % 28k gurasoek asko kontrolatzen zutela esaten zuten, eta 1991n, % 34ek du uste berbera.

Lan egoerari dagokionez, gazteriaren % 34,6 lanean ari da, eta % 54,6 ikasten.

Arlo honetan aipagarriena bi sexoen arteko desberdintasun nabariak dira. Gizonezkoen % 39,7k egiten du lan, emakumezkoen artean portzentaia % 30koa den bitartean. Langabezia ere handiagoa da emakumezkoen artean.

Beste urtetako datuekin (1986) alderatuz, zenbait aldaketa nabariak gertatu dira. Horrela, langabezian dagoen gazteen kopuruak % 12 egin du behera (% 19,8tik % 8,2ra) eta ikasten ari direnen kopurua ere dexente igo da (% 48,2tik % 54,6 ra).

Euskarari dagokionez, gazteriaren % 77,1ek ez daki eta horien artean erdia baino gehiagok (% 61,6) ez du ikasteko asmorik. % 9 euskaldunzaharra da, baina erdia baino gehiago ez dago alfabetizatuta. Azpimarratzekoa da % 42k bakarrik diola atxekimendua euskarari, % 54ek ez bait du ikasteko asmorik, eta % 6,5ek

kontrako jarrera duelako.

Sexu kontuetan, Nafarroako gazteriak informazio ona baduela antzeman daiteke. Halaber, oso tolerantia da, eta antisorgailu eta abortuaren aldeko jarrera nabaria dauka.

% 36k izan du noiz edo noiz harreman sexual osoak, eta % 30ek ez du inoiz kontakturik izan. Aldaketak badaude sexuen artean, baina ez dira oso nabariak. Orokorrean, gazte nafarrek nahi-

kontrako jarrera handia diote bikoteari, baina aldaketa nabariak dira hemen sexuen artean. Horrela, emakumezkoen % 92k bikotearekin bakarrik izaten ditu harreman sexualak, gizonezkoen artean kopuru hori % 63ra jeisten den bitartean.

Erljioari dagokionez, % 65 fededuna da, eta % 25i ez zaio axola. Soilik % 9k dio ateo dela.

Politikan ere badago zenbait gauza azpimarratzeko. Gazte nafarrek zentrua (% 40,6) eta ezkerre (% 28,5) dute gustokoan, beste aukeretatik franko urrun. Halaber, esan daiteke ezkerreko aukera are garbiago egiten dela adinean aurrera egin ahala, zentrukoa gutxitzen den neurrian.

Hala ere, ez dute aparteko interesik erakusten, % 43,7k urrutetik jarraitzen bait du informazioa, baina gehiengo nabaria biolentziaren aurka agertzen da (% 54).

Nafar, euskaldun, espainiar eta europar dira, hurrenez hurren, gazte nafarrek estimatzen dituen balioak. Tokitik tokira desberdintasunak badaude, egon, eta euskalduntasuna sendoagoa da iparraldean. Erriberan espainartasuna eta europartasuna dira azpimagarriak.

Drogen kontsumoari dagokionez, inkestaren datuek garbi erakusten dute soberazkoa dela orokorrean hartuta. Horrela, gazteriaren % 12k ez du deus edaten, eta % 71,2 zerbait edaten du. % 14,4ek gehiegi edaten du. Tabakoan jeitsiera izan da azken urteotan, baina oraindik gehiengo da errezaileen kopurua. Soilik % 40k ez du deus erretzen.

Heroinaren kontsumoa jeitsi egin da nabarmen, eta kokainarenak gorakada izugarria izan du. Beste drogen kontsumoak ere jeitsi egin dira, cannabisena ezik.



Gazte nafarrek osasuna, amodioa, familia, adiskidetasuna eta lana dute preziatuen. Politika edota erlijioak gero eta kezka txikiagoa sortzen diete, eta gehienek zentru edo ezkertiarizat dituzte euren buerak. Halaber, lana zela eta zegoen kezka, dezente jeitsi da azken urteotan. Hauek dira Bartolome de Carranza erakundeak Nafarroako gazteriari buruz egindako azterketaren zenbait emaitza. Bertan ere garbi antzematen da gazteek oso jarrera irekia dutela sexu kontutan, eta antisorgailu eta abortuaren aldekoak dira.

mintzoak

Herrigabeok

● Nork bere kondizioa errebindikatzeko aukera ematen duten garai hauetan neuk ere nirea errebindikatu nahi dut: herrigabearena.

Herrigabea esaten dudala ez dut esan nahi inon jaio ez garenik. Herrigabe izatea egoera bat da, berdin diolarik bat nongotarra den. Herrigabe izatea, zerbait bada, ez-identifikazioa da.

Herrigabeok mitologia berriak —edo eraberrituak gutxienez— asmatu genitzake; Kotxegidari Galduarena, esate batera; Jainkoei iruzur egin nahi izan ziena, gizarajoa, hauek berarekin aspertu eta bere utilitarioan inoiz inon aparkatzeko tokirik aurkitu gabe bueltak eta bueltak ematera kondenatu zutena. Mateo Txistu berria. Edo Ekologista Nekaezinarena, igandero, goiz goizean, manifara baino lehen etxe atariko txiza-errekak eta gonbito-saltsak zeharkatzeko ezkozko hegoak egin zituena, Ikarok bezala denok dakizuen fin

ankerra aurkitu arte.

Mitoak edukitzetik aberri oso bat asmatzera bide laburra dago. Gainerakoa berez dator, oroimena ez dugu galdu, baina, hala ere, ez gara oroitzen gure haur jolasetako eszenatokiarekin, gehienetan asfaltoarekin berdindu duten plaza bat zelako, gero hiper bat, aparkaleku bat —aparkatzeko beharra ere soluzionatuko ez diguna—, edo eta hamar solairutako banketxe bat eraikitze baliu izan duena. Galdu dugu lotura oro, lur zein etxearekikoa, eta horregatik edozeini irekitzen diogu pisuko atea. Pisua bera ez da gurea, jakina. Farra egiten dugu maiz, maizegi agian, bestela negarra egingo genuelako maiz, maizegi. Iragana ere ez dugu falta, eta txirrintaz entzuten dizkiegu zaharrei etxe bereko bizilagunak elkarrekin hizketan egiten zuteneko kontuak. Ziutate handietako —benetan handietako— zorabioak jo ez gaituelarik, ezin iritsiko gara sekula heroe urbano izatera. Gero eta jende

gutxiagok agurtzen gaitu kalean barna gabiltzala, eta are, denok lehengusu izan ezean nahiago genuke inork agurtuko ez bagintu; honezkero berdin nazkatzen gaitu anonimotasunak —bakardadearen ataria— nola anonimotasun faltak —kontakatiluaren erresuma—; probintziaren gaineko gogoeta probintzianoak zein Lou Reeden makroprobintzianismo erraldoiak. Bai, ezerezaz egindako aberri oso bat asma genezake, hartarainoko gogoa eta gustu txarra bagenitza, baina nahiago dugu festa egin nortasun agiririk inori eskatu gabe, bai baitakigu horrela zalapartatsua eta basak izaten direla.

Auzokide txarrak gara; aldameneko pisukoek gorrotatzen gaituzte haiek ezagutzen ez duten hitzeko kodigo honi diogun atxikimenduarengatik, jaiegunetan haiek eta haien seme-alabak ohean goxo goxo daudela mendira baino lehen sortzen dugun kalapitarengatik, eta ahazturren

maindire txuriak ez digulako Eneko Arista, Fernando VII, Rodriguez Medel edo eta Mola bezalako izenik gogotik erori erazi. Hori dela eta hala nolako nazionalismo pangermanikoa eraiki nahi izatea leporatzen digute, gure belaunaldi askotako mestizajeari begirune gutxi eginez. Ez omen dituzte ontzat hartu nahi bilatu nahi izan ditugun loturak, lehengo garaiekikoak, lurrarekikoak, hizkuntzarekikoak, inoiz gurea izan omen zen —hain da luzea harrezkero ibaiko urak egin duen bidea— altxor auskalo noraino fikziozko baten buztanaren azken ileari atxikiz eromenatik salbatuko gaituen euskarria aurkituko dugula eritzirik. Ez omen dituzte gizalegezkoetat hartu nahi gure saio hauek; saio ohoragarriak, inondik ere, sarri askotan nostalgian, bigarren etxebizitzan edo eta gatzarik gabeko hizketa halamoduzkoan amiltzen badira ere. Inor ez da perfektoa.

Azken ahalegina eginez ihauterietara joan ohi gara


harrapaladan, edo ez dakit nongo festetara. Sustrai bila, arratsalde pasa edo besteren etxe atarian txiza egitera, nahi duzuen bezala esan, funtsean berdin dio eta. Jaigiroa hondatzera agian, batek baino gehiagok esango bide duenez.

Litekeena. Ez ohi daramatzagu txanpon batzu, nork bere gustoko pelikulako protagonistaren antzerako planta eta frustrazio-izpiño batzu mediokritate-tanta batekin nahasturik; bere onean eta senean dagoen inor izutzeko nahikoa ez. Ezta nahi ere. Asko gabela? Denok gaude handiagoak ikusita.


Azkenean, hain da txikia gure drama non inongo historiak haintzat hartzeko modukoa ez baita. Eta horixe da, paradojaren paradoja, gure dramarik handiena.

Txertatu ezazu herrigabe bat herriko plazan.





Almadiak berriro Nafariniotako ibarretan



Almadia talde bat Eskat ibaitik behera.

SANTA MARIA DEL VILLAR

Bizibidea ikasteko eskola Burgin

M. KAPITANSORO / ZANGOZA

1952an jeitsi zen Erronkaritik azken almadia, kronikak diotenez. Esako urtegia zabaldu zuten urte berean. Aurrerago hasia zen garraio bide honen erabileraren beharrez, baina Nafarroan Piriniotako beste ibarretan baino askoz ere gehiago irau zuen, urtegien zabalpena beranduago izan zelako, hain zuzen ere.

Nafarroan barnean ere desberdintasunak izan ziren, eta Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkarin, hurrenez hurren, izan ziren gehien irau zutenak. Aetzek 1920 alde-

ra ikusi zuten azken aldiz almadia bat beren ibaietan, Irabiako Uharka egin zuten arte. Zaraitzun 1945a arte irau zuen, eta Erronkarin izan zen gehien gorde zena, horretarako egoera egokienak izan bait ziren bertan. Katalunian, kasu, 1920an desagertu ziren, eta Aragoian, 1940 aldera.

Hurrengo urteetan, zeharo desagertu ziren, eta haiekin batera, bere gainean joaten ziren almadierok ere. Hauek beste lanbide batzuri ekin zieten, aukera handia sekulan izan ez bazen ere. Erronkariko esaera zahar batek zioenez, bi bide zituen gaz-

teak hamabost urte betetzera-koan: makila hartu, artzantzan aritzeko, edo aizkora hartu, egurretan aritzeko. Biak beharrezkoak ziren, askok eta askok Iruñea edota beste herrietara joan behar izan zuten lan bila.

DESAGERTUZ GEROTIK 1971-N

Gerotik Nafarroan egin zen lehendabiziko almadia 1971ko maiatzaren 9an bota zen Eskara, Burgin. 'Nafarroa, lau garaiak' izeneko filmerrako, Bigarren aldia Zangozan izan zen, 1974eko ekainean, eta bertako Kultur Etxeak antolatu

Espaniako Armadak bere itsasontziak. Berrehun urtetan, horrela, Aezkoa, Zaraitzu eta mendako egurraren zuen beharra nafarrikoko bizilagunak lan honetan adituak izan ziren. zuten neurrian hasi zen Nafarroako baso-artegiak eta bide berriak ugaldtu ahala, baina, lana denbora sakona. Ordura arte soilik bertakoen beharrezkoak ziren, eta azken almadia 1952an jeitsi zen Eskatik. erabiltzen ziren baso oparoak, baina hortik aurrerant, nafar almadierok elkarteak sortu dute, eta Burgin tsezko bizibide bihurtu zen egurrarena. XVIII mende almadia egiten irakasten ari zaizkie. Luze gabe, ari gara, eta garraioa ondoko ibarretatik hartu zen almadia berria jeitsiko da Eskatik.

zuen almadieroen aldeko omenaldiaren barruan. Ondoren, Urzainkin (1978), Burgin, Irunberriko Potxa eta Ariben (1986), eta Zangozan (1988) egin ziren antzeko ekitaldiak.

ALMADIAK ESKOLA BURGIN

Azken almadierok erronkaritarak dira batez ere. Aezkoan 1920 aldera desagertuta, ez daude ordukoak ia gelditzen, eta Zaraitzun dozena erdia baino ez dira. Egoera horrela izanda, bi helburu zehatzak paratu ditu elkarteak: material guztiaren bilketari ekiten, ondoren museo bat egin ahal izateko, eta almadien inguruko bizimoduak bertan izan zuten garrantzia azpimarratzea. Horretarako honi buruzko lan eta ikerketan bultzatu eta lagunduko dira, eta ekitaldi-entzian parte hartuko du elkarteak.

berak gordetzen du, bere hitzetan, «Nafarroako almadiei buruz dagoen artxiborik osatuen». Aizkorak, jantziak eta bertan erabiltzen ziren hainbat lanabes eta tresna biltzea da helburu.

Antolatuta duten bigarren ekitaldia, akaso bitxienetakoa, Burgin sortu duten eskola izan da. Elkartearen proposamenari esker, almadierok talde batek bere teknikak irakasteko konprometua hartu du hamabi bat gaztekin, eta dena ongi baldin bada, egingo den almadia maiatza aldera botako da Eskara. Gazteek harrera ona egin omen diote ideari, eta Beunzak adierazten duenez, berriena da txanda, «hiru edo lau urte barru, beraiek eginen dutelako dena. Almadierok zahar gutxiak dira Europar zein Amerikan, eta kokapen estrategiko hori zela eta, funtsezko portua izan zen Zangoza almadia desagertu arte.

XVIII mendera arte, baina, ez dira lehendabiziko almadia Nafarroko ibarretan ikusiko. Orduan, eta Carlos IIIa erregearekin, Espainiako Armadak zuen egur beharra areagotu egin zen nabarmen, eta Aezkoa, Zaraitzu onartuko dira. Ondoren, iraillean, Nafarroan egingo den bileran, federazioa modu legalean osatuta izango da.

1952a arteko historia

M.K. / ZANGOZA

Nafarroako lehendabiziko almadierok XVIII mendekoak badira ere, Zangozak tradizio luze eta garrantzirikoa dauka mota honetako garraioan. Bertan biltzen ziren Nafarroa zein Huescako zenbait ibarretako almadia, ondoren Zaragozarako bidari jarraitzeko.


Javier Beunza Nafarroako Almadieroen Elkarteko burua almadiei buruz aurkitu duen izkriburik zaharrena 1340koa da, Zangozako, hain zuzen ere. Bertaraino heltzen ziren Anso eta Hecho ibarretako almadia, Zaragozako bidean, eta kokapen estrategiko hori zela eta, funtsezko portua izan zen Zangoza almadia desagertu arte.

XVIII mendera arte, baina, ez dira lehendabiziko almadia Nafarroko ibarretan ikusiko. Orduan, eta Carlos IIIa erregearekin, Espainiako Armadak zuen egur beharra areagotu egin zen nabarmen, eta Aezkoa, Zaraitzu onartuko dira. Ondoren, iraillean, Nafarroan egingo den bileran, federazioa modu legalean osatuta izango da.

Teknika Aragoiko ibarretatik ikasi zuten nafarrek, eta oso urte gutxitan izugarriko gorakada izan zuen garraio mota honek. Horrela, 1766an 6.233 enbor ateraz bazen handik, zortzi urte beranduago 24.265 izan ziren. Horretarako lan itzalak egin ziren Irati, Eska eta Zaraitzu ibarretan, zailtasun guztiak nolabaiteko segurtasunekin gainditzeko.

ALMADIAK ZATIKATIK EGITEN

Enborrak basoetan moztu ondoren, urteak zuzen, uretatik urrun. Ohizko almadia pinu zein izei egurrezkoak izaten ziren Zaraitzu eta Erronkarin, eta fago egurrezkoak Aezkoatik zetozena. Zati kopurua aldakorra zen, eta baita enborren tamaina ere. Sendoenak beti atzean joaten ziren, eta aurrean finenak. Zatiak hiru edo lau izaten ziren batez ere Zangozara heldu arte, ibaien estutasuna zela eta. Aurrean bat edo bi gizon joaten ziren, bi arraun luzekin. Horiek ziren almadieroen norabidea eramateko zutenak, eta atzekoak almadia zuten edukituz arduratu beharra zekukan. Aurreko lana zailagoa zelakoan,



Irunberriko Potxa, 1986ko ekainaren 1ean egin zen jeitsialdian. BEUNZA

denak batera jeisten ziren, uraren indarra aprobetxatuz. Erronkaritik Zangozarainoko bidea egun batean egiten zen, eta Zaragozarainokoa, bost-zazpi bat egunetan.

Zangozara heldu baino lehen biltzen ziren almadia, Aragoi ibaian sartzerakoan, hain zuzen ere, eta luzera eta zabalera handiago izaten zuten orduan, ibarrek horretarako parada ederra ematen bait zuten.

ZANGOZA ALMADIEROEN TOPAGUNE

Zangoza zen, beraz, ezinbesteko erreferentzia eta topagune, almadieroen zenbaitek hortik Erronkariko bidea hartzen bait zuten berriro, almadia gehiago egitearen. Bestek bertako ostaluetan egiten zuten lo.

Beunzak haiengandik aditu duen bezala, «Askotan jantziak hormaturik heltzen ziren, hotza zela eta, eta bertako emakumeek beti zuten aldatzeko arropa eta su on bat».

Hala ere, ostatura soilik lo egitera joaten ziren, bazkaria beti berriek eramaten bait zuten: patarra gosaltzeko, migak hamaitzarako, eta eguerdian, axuria, ibaiaren makaldiren batean. Afaria herrietan egiten zen.

Mende hasiera arte irau zuen bizibide honek. Orduan hasi ziren urtegiak eraikitzen —gaindiezineko barrakada—, eta errepideetako garraioa areagotu eta merketu egin zen, almadia gutxitu egin ziren nabarmen. Hala ere, gerri zibilaren ondoren susperraldia izan zen, gasolina zein txirikendako materiale falta zela eta. Azken arnasa zen. Esan bezala, azken almadia 1952an jeitsi zen Eskatik Zangozaraino.

esperientzia handikoak paratzen ziren bertan.

ISTRIPU UGARI BIDEAN

Urjauziak zeuden lekuetan arrapala moztu duko zerbait eraikitzen zen, bertatik jeisteko. Hala ere, istripu ugari izaten zen beti, uraren indarra zela eta. Beunzak adierazten duenez, «horietatik askok ez zekiten igeri egiten, eta ibai hauetako ur hotzetan erortzea gauza larria zen. Frankotan, pasabide estuetan, almadia topo egiten zuten, eta uretara eroriz gero, zaila izaten zen handik burua ateratzeko».

Gazteendako Zokoa

Basoilo handia

Otis tarda

Ia desagertuta Nafarroan
Poligamoa
Ñabarra ia gorputz osoan



Hegazti erraldoia

Ia desagertua jadanik Nafarroan, hegazti handienetakoa dugu Euskal Herrian. Emeek 4 eta 5 kilo bitarteko pisua dute, eta arrek dobla hartu ohi badute ere, 16 kilotaraino ere hel daitezke. Emeek 1,7 metroko hegal-zabalera izaten ohi dute, eta arrek, ordea, 2,5 metrokoa.

Burua, lepoa eta bularraldera, ñabarra dute, eta isatsaren lumak eta bularra beltzaz tindatutakoak dira. Estepan bizi da, muinotan, eta ez ditu gustoko ez harkaitzak, ez zuhaitziak ezta basamortuak ere.

Normalean, sexu eta adin berekoak biltzen ohi dira, eta araldian, emeak erakartzeko, oso jarrera bitxia hartzen du arrak, luma guztiak astinduko balitu bezala.

Poligamoak izanda, eme zenbait erakartzen du arrak, eta behin ernalduta, kabia paratzera alde egiten du emeak. Horretarako zuloa egiten du lurlean, eta bertan bi edo hiru arraultz urdin erruten ditu, 24-28 egunetan zehar.

Matxinsalto, kilkirrak, kakarraldoak eta zizariak jaten dituzte, eta udaberri eta neguan begetalak hartzen ditu, batez ere biko-rrak eta ostoa.

XABI RUIZ

Eguzkia baino mila aldiz berotsuagoa den infernua maltzurren mundua da. Sarrera eta irteeraren zaintzailea Luzifer da. Alfonbra gorri bat den infernua iluna, gorria, maltzurra, harritsua eta, hori bai, beldurgarria da. Infernua hiltzaile, bortxatzaile, lapurren eta abarren mundua da. Segun nola portatu zaren bizitzan hala biziko zara han.

Adibidez: oso txarra izan baldin bazara, oso ondo biziko zara infernuan. Eta txarra izan baldin bazara, ez oso ondo. Beraz, badakizu. Maltzur-maltzurra izan zaitez, edo ez izan gaiztoa. Bestela gorriak ikusiko dituzu eta.

Lehen eesan dizudanez, Luzifer infernu osoaren zaintzaile bakarra da. Baita erregea ere. Buru gainekaldean eta ile beltz belduzko artean, bi adar ditu ikatza baino beltzagoak direnak.

Bere kopetapean, izugarritzko begi berdeak ditu. Beherago, aurpegipean, lepoa hain zuzen ere, ikatz ileek estaltzen ditu. Bizarduna da benetan! Eta amaitzeko bere isats luze, gorri eta lodia du, bere atzekaldea babestuz. Maltzurrenako maltzurrena da!

Beste leku batean, trafikoa eta kontaminazioa dagoen munduan... herriska txiki, polita, jator, zahar eta lirain batean, kanpokaldea, kilometro batera edo, oso etxe polita zegoen. Oso polita zen: lehioak handi xamarak, atea ere bai, eta neri gehien atsegin zitzaidana, etxea belar eta zuhaitzen koloretakoa zen. Jardinak eta izaugarritzko piruleta berdeberde batzuk inguratzen zuten. Etxe honetako jabea gizon jator, eskuzabal eta argia zen. Baina arazo bat zeukan, bera printzesa polit bat baino politagoa zen neskatxaz maiteminduta zegoen. Nahiz eta neskatxak jaramonik egin ez. Bihotza mila zatitan apurtuta zeukan! Oso haserre zegoen gau hartan eta zera oihukatu zuen:

—Luzifer, Luzifer! Entzun! zurekin paktu bat egin nahi dut!

Fausto doktorea



Ondoren oheratu egin zen, baina lorik hartu ezinean zebilen...

Izugarritzko beroa zeukan eta ileetatik benetako ur jauziak erortzen zitzaizkion. Eskubi-ekker, goitik-behera ibili zen etxe guztian zehar, lokartu ezinik.

Baina bapatean bere logelan zegoen bitartean... kortina txuribeltz bat agertu zen! Luzifer zen!!

Paktu bat egin nahi zuen! Gizonaren arima hiru desioarengatik. Gizonak bi aldiz pentsatu zuen. Luziferrek gizonak baietza eman zezan hauxe esan zuen: —Hiru desio eh! Neskatxa, dirua, eta oraindik desio bat gertatzen zaizu.

Hori entzun eta gero, jarraian baietza eman zuen.

Lehenengo desioa Luziferrek esan zuen lehenengoa izan zen: neskatxaz Romeo bezalaxe maitemintzea izan zen. Goizean tinbrea joka hasi zen eta gizona bapatean esnatu zen. Baita jeiki ere.

Neskatxa zen! han zegoen deklaratu nahirik. Bi aldiz pentsatu gabe baietza eman zion. Bere usatez dena gorpulen gainetik zihono. Baina...

Bigarren desioa honako hauxe izan zen: bere bizitza osoan bere familiak osasun ona edukitzea.

Luziferrek betea zegoela esan zuen behatzekin 'txask' egin ondoren. Oso urduri zegoen, laister Luziferri bere arima eman beharke ziolako. Gizarajoa! Gau hartan marmota bat bezalaxe lokartu ezinik, gau guztia etxea goitik behera zeharkatzen pasatu zuen.

Bapatean argi pizten den askatasunez ideia bat argitu zitzaien. Hurrengo goizean alaitu Luziferri deitu ta oihukatu zion. Betiko eran azaldu zen. Pailazo alai bat baino alaituagoa zegoela zirudien. Hirugarren desioa entzun zuen arte. Hauxe izan zen: Luziferrek bere arima ez eramatea inoiz ere. Paktua erre ondoren lehoi haserretu bat bezala jarri zen. Ondoren izugarritzko begirada bota zion gizon gizarajoiari. Mundu guztian begirada hori bezain izukaitza zenik ez zen ezagutu ezta ezagutzen ere. Eta begirada txarrez aldendu egin zen. Gertaera izan ondoren hau esan zuen: —Nere arima ez dut inoiz gehiago salgai jarriko.

Eta hortik aurrera oso zoriontsuak izan ziren.

KAZKARROAN

Kotxe istripua

Leitzako bertso eskolako irakasleak izan zuen istripuaz.

Talbot batean abiatu zen
Leitzatikan Iruñara
hotza ugari eta elurra
ari zuen mara-mara
Huitziko portun topatu zuen
hainbat oztopo ta traba
frenorik ez zula jakin orduko
atera zen kunetara

Talbota zaharrak kubiartak zituen
llantaraino gastatuak
gidari hauek karnetak ttuzte
tonbolatikan lortuak
atzeko ruedak omen zeuzkan
kunetaraino sartuak
etxera joan ta kotxeko gastuak
amak dizkio patuak

Iker Astibia

Zaharrak berri

Iltzea edozeinek egiten du:
bizitzen daude komeriak.
Bizitza gogorra da batzutan.

Araitz

Danbolin ordainduak, soinu
txarra yotzen du.
Aurretik pagatutako lanak,
ondore txarrak.

Leitza

—Jabea etxean da?
—Ez, ez da etxean, atera egin da.
—Eta noiz etorriko da?
—Espetu, oraintxe galdetuko diot.

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

N-18

EZKER-ESKUIA: 1.- Ur korrente. Arraun egin. 2.- Bizkaiko. 3.- Arto, hitz elkarketan. Ez erraz, gaitz. 4.- Italiako telebista eta irrati ofiziala. Pilota jokoko puntu bakoitza. 5.- Kontsonantea. Bizkaieraz, gehiegi. Lehenengoa. 6.- Zuhaitz mota. Atzizkia. 7.- Alderantziz, osasuntsu. Egun. 8.- Lemaria. 9.- Trebe, abila. Garrak.

GOITIK-BEHERA: 1.- Arro, haran. Hots edo soinu ozen, fin. 2.- Bihurgunea. 3.- Sorgin. Zerbaiten mui. 4.- Ikas eta Ari. Urola ibaiaren adarra. 5.- Bokala. Jatorri atzizkia. Azkenekoa. 6.- Aurpegiko ile. Aire izaerazko gorputz. 7.- Iparorratz. Itxura, tankera. 8.- Zerbait egiteko ahalmena. 9.- Sail. Plurallean, oinarritzko edaria.

Bizi bizian

Komunikabi-deen arloan euskarak Nafarroan duen egoera penagarria ez omen du konpontzeko asmorik UPNko gobernuak, sozialisten jarrera axolagabekeriari jarraiki. Euskalerrria Irratiak berriro ere, aste honetan, euskarazko emisorentzat irtenbide egoki bat eskatu dio komunitate foraleko Administrazioari. Iruñerrian Nafarroako euskaldunen erdia bizi da. Euskarazko irratia entzuteko aukerarik ez diote ematen ordea. Lizentzi banaketan ustelkeria nagusitu da eta beste elkarte autonomikoetan gertatzen ez den bezala hizkuntza gutxiagotuak bazterturik dirau. Euskalerrria Irratiak, 'napphartheid' honetan, hala ere, ez du etsi eta asmo berriak ditu hurrengo denboraldirako.

Iseka baten istorio luzea

IZASKUN IBARRA / IRUÑEA

Aspaldiko ahalegina da Iruñerrian euskarazko irratia bat egitea. Dagoen bakarra, Euskalerrria Irratia legez kanpo ari da emititzen nahiz eta Administrazioaren «tolerantzia» eduki. Presidente ordea den Sanzek Barne komisiolan berriki esan zuenez, «euskarazko irratien egoera ez da legala» eta gobernuaren «borondateari esker» ari dira emititzen.

Izan zen aukera bat, 1990eko urrian frekuentzia berrien adjudikazioa egin bait zen, baina aukera hori galtzen utzi zuten. Ezaguna da Iruñeko konzesiotako bat, Radio Blanca izenekoari eman zitzaioela, nahiz aurkeztu zuen proiektua 'karikatuta' hutsa izan, nahiz jakin elkarte horrek ez zuela irratia martxan jartzeko asmorik.

Eman eta gero, ez Radio Blanca, baizik Onda Cero delakoa da emititzen hasi dena. Lehiaketan parte hartu eta lizentzia lortu ez duen elkarte bat, hain zuzen ere. Euskalerrria Irratia berriz, konkurtsoak eskatzen zuen baldintza guztiak betetzen zituen irratia, alegia, lizentziarik gabe gelditu zen. Zer eta nola? Inork ez daki. Ustelkeria nagusitu da. Iseka istorio luzea Euskalerrria Irratiarena.

LIZENTZIEN BIDE MALTZURRAK 1985an Iruñeko Komunikabi-deak elkarteko presidentek Euskalerrria Irratiak emititu ahal izateko eskaera sartu zuen Administrazioan. Euskarazko irratia publikoa egiteko asmorik ez zegoen orduan (orain bezala) eta haiek egin ezean Iruñeko Komunikabideak elkar-teak bere gain hartu zuen proiektua.



Lizentzien banaketa eta gero Iruñean burutu zen manifestazioa.

JOXE

Aipatu urtean Nafarroak ez zeuzkan kompetentziarik. Ginebran frekuentzien banaketa egiteke zegoen eta egitasmo tekniko ere ez zegoen prest. Itxoin egin behar. Burutu ziren plangintza hauek, baina hala ere, euskarazko irratia bultzatzaileei emandako epe guztiak iragan eta gainditu ziren.

1988ko udazkenean frogetarako emanaldietan abiatzeko baimena eman zuen Aladino Colinek. 1989ko apirilean, estatuak, bere jurisdikzio barruko probintzietan, lizentzien konkurtsoa deitu zuen. Berdin elkarte autonomikoetan. Nafarroan ordea ez zen horrela gertatu.

ITXAROPENA PARLAMENTUAREN ERABAKIAREKIN Colinek esan zuenez deialdia «ahal den eperik laburrenean eta unerik egokienean eginen

zen». Parlamentariak erantzun hori farrezka hartu zuten. Saio hartan bertan presidente ordeak adierazi zuenez, zeuzkaten lizentziak aski izanen ziren eskakizun guztiak hartzeko. Legebiltzarraren bigarren bilkuraren aginduz atera zen deialdia. Oraindik ere balio kulturalako proiektuek lehentasuna izanen zutela aipatzen zuten. Itxaropenik bazen.

Baina gauzak ilun zeudela eta, 'pasilloa' egiteko aholkua eman omen zioten Euskalerrria Irratiari. Hauek ordea egokiagoa ikusi zuten erakunde eta elkarte kulturalen babesaren lortzea: Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Nafar Ateneoa eta abar.

1990 irailean, erresoluzioa baino bi aste lehenago, Urralbururen adiskidantza batek alferrik zela esan omen zuen, emanak zeudela lizentziak. Urrian iritsi

zen erabakia. Baina, Mikel Bujanda Euskalerrria Irratiko zuzendariak ezan bezala, «hain ezaguna ez dena da zein informetan oinarritzen den erabaki hori, nork eta nola epaitu zituen proiektuak, zein irizpide erabiliz, eta zein argudio bide makur erabili zuen presidentziako sailburuak».

Gaur egun Nafarroan ez da entzun-ikusteko medio bakar bat legezko egoera duenik euskaraz aritzeko.

Katalunian bizi dute egoera hoberena. RNE4, Catalunya Radio, Catalunya Musica, Cadena Tretze-ko hamasei emisora, eta 100 herri emisora baino gehiagok katalanez emititzen dute. Valencian RNE4 eta Canal Nou valencianoz aritzen dira. Galizian RNE4, telebistaren emisora, EKA Irrati kulturala eta hainbat herri emisorak ere gailgez aritzen dira.

Programazioa pixkat zabaltzeko asmoa du irratia datorren urte honetarako

I / IRUÑEA

Urte franko pasa dira Euskalerrria Irratia emititzen hasi zenetik. Orain arte lizentzia izan dute helburu nagusitzat. Izan ere, lizentzia balute aukera gehiago litzukete dirulaguntzak eta publikitate lortzeko. Baina kontzesioa iritsiko denik ez dirudienek, aurrera jarraitu behar dute eguneroko lanean.

Enrique Diez de Ultzurrun irratiko lokutorearen esanetan, «helburu nagusia, azken helburua eta lehenbizikoa, irratia da. Sendo, errotu eta zabaldu dezagun irratia eragin soziala izan dezan. Batzuk animoz ahul dabil-tza, baina indarrak batu egin

behar ditugu benetazko helburua lortzeko».

Euskalerrria Irratiko kazetariak azaldu duenez programazioa zabaltzeko asmoa dute ikasturte berriari begira. «Bapatean ez gara hasiko, baina gure indarrak neurtuz, eta poliki poliki, programa gehiago egiteko asmoa dugu. Musika jartzen bada ere, eta tarte-komentario ttiki batzuk egiten baditugu, horrek erran nahi du irratia honek baduela presentzia».

Hasierako asmoak ordu horiek musikaren bitartez betetzea dira. Gero bazkal ondoren ordu erdiko albistegia egitea pentsatu dute. Hirugarren pausua magazine antzeko bat lantzea litzateke. «Beharbada joko genuke egun

bakoitzean edukin finkoa sartzera. Korresponsal sarea ere eratzeko asmoa dugu» adierazi digu.

Kazetariaren iritziz «polita litzateke eskualde euskaldunetik kanpo gelditzen diren herriak hartzea: Lizarralde, Tafalla, agian Sakana».

Euskalerrria Irratia Iruñerrian entzuten da egun eta hiru emanaldi egiten ditu, bi albistegi eta gaurkotasanari lotuta dagoen beste saio bat goizeko hamarretan. Hauetaz gain 'Xinguli Mangulu' haurrei zuzendutako saioa eskaintzen dute larunbatetan, 'Gauko irrintzia' musika saioa astelehen gauetz, eta 'Ontzak ere baditu belarriak' naturari buruzko emanaldia ostegun gauetan.



Mikel Bujanda kazetaria.

JOXE

Enrique

Villareal 'Drogas' Abeslaria

«Badakit ez naizela ez onena ezta politena ere»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Noiz eta zergatik erabaki zenuen disko bat bakarka egitea?

ENRIQUE VILLARREAL 'DROGAS'.— Azken finean, diskoa go-goan nuelako ateratu dut. Duela hiru edo lau urte hasi nintzen lan honekin, baina hasiera batean ez neukan disko bat ateratzeko asmorik. Etxean, nere tresnekin eta neure kabuz egiten nituen abestiak, eta bapatean disko bat ateratzeko adina abesti nituela pentsatu nuen. Ideia gustatu zitzaidanez, ba hori, diskoa ateratzea erabaki nuen.

EGUNKARIA.— Zergatik 'Txarrena'?

DROGAS.— Hitza gustatzen zaidalako, grabatzen ari nintzanean hitza entzun eta diskoari izen hori jartzea erabaki nuen. Beharbada, momentu horretan beste hitz bat entzun izan banu, diskoak beste izenburu bat izango zuen, momentuko gauza izan zen. Dena den, hitza eta bere esanahia asko gustatzen zaizkit.

EGUNKARIA.— Ba al duzu bakarka disko gehiago egiteko asmorik?

DROGAS.— Musika da gustatzen zaidana, eta bakarka disko gehiago ateratzea gustatuko litzaidake, baina baita Barricada eta beste jendearekin ere.

EGUNKARIA.— Zerk bereizten ditu 'Txarrena' eta Barricadaren azken diskoa?

DROGAS.— Ez dakit, nik ezin dezaket hori esan. Argi dago Barricadaren diskoetan laurok har-

tzen dugula parte abestien konposaketan, eta honetan nik bakarrik egin dut lan hori. Bi gauza ezberdinak dira, bi gauzetan ordu mordo sartu dut, baina Barricadaren diskoetan gure lokalean sartu ditut orduak eta 'Txarrena' egiteko etxean egin dut lan, nire tresnekin. Planteamendua guztiz ezberdina da, letrak beharbada ere bai, agian pertsonalagoak dira, ez dakit. Dena den, nahiago dut arazo hau jendeak argitu dezala, bakoitzak bere etxean diskoa entzuten duenean gustatzen zaion ala ez erabakiko du, eta orduan antzemanen du zer-nolako ezberdintasunak dituen Barricadaren diskekin.

EGUNKARIA.— Joan den larunbatean Lakuntzako Ilargi dantzatokian aurkeztu zenuen diskoa. Zer moduz moldatu zinen?

DROGAS.— Oso gustora aritu nintzen, era guztietako sentazioak izan nituen. Soinu proba egiterakoan urduri nengoan Barricadakoak ez zeudelako han, baina jotzera ateratu nintzanean oso gustora sentitu nintzen, gustora ibilginen eszenatokian, eta behekoek

Enrique Villarreak, 'El Drogas', plazaratu berri du 'Txarrena', bakarka egin duen lehen diskoa. Txantrearraren lagun askok parte hartu dute diskoaren grabaketan, eta laguntza hauen artean azpimarragarriena, 'Malos tratos' taldea osatzen zutenena. Horiekin batera, eta 'Mephisto' taldeko gitarrajolea-

rekin, joan den astean Lakuntzako Ilargi dantzalekuan aurkeztu zuen disko berria. Han egon zirenen esanetan, kontzertu itzela izan zen txantrearrak eskaini zuena. Dena den, hau ez da Barricadaren amaiera, 'El Drogas', Alfredo, Boni eta Fernandok uztailan ekingo bait diote disko berria grabatzeari.

Diskoaren aurkezpenean hasieran urduri nengoan Barricadakoak han ez zeudelako, baina jotzera ateratu nintzanean gustora aritu nintzen.

ere ondo pasa zutela uste dut. Kontzertua amaitu eta gero, batzuek soinua nahiko txarra izan zela esan zidaten, baina horrek ez nau larregi arduratzen.

EGUNKARIA.—

Kontzertu gehiago emanen dituzu diskoa ezagutarazteko?

DROGAS.— Jadanik Barcelona eta Madrilan izan naiz, eta Bilbora eta Valenciara joatea pentsatu dut, horretaz aparte ez dut uste kontzertu gehiago emanen ditudunik. Ekainean ezustekoaren bat eman dezaket.

EGUNKARIA.— Barricadarekin hasi zintenean kapa beltzez eta burezur batekin iriteten zinen eszenatokira, nola edo hala irudi traketsa ematen zenuen. Orain ordea, aldizkari 'heavy-etan' abeslaririk sexiena aukeratu zaituzte. Zer deritzozu aldaketa honi?

DROGAS.— Ez nau arduratzen; berdin zait guzti hori. Beste aldizkari batzuetan baxujolerik onena hautatu naute. Nik badakit ez naizela ez onena ezta politena ere, horrelakoek ez naute arduratzen.

EGUNKARIA.—

'Txarrena-ren' grabaketan beste taldetako jendeak hartu du parte, Mephisto, Malos Tratos, Aurora

Aspaldidanik ez naiz izan taberna batean kontzertu bat ikusten, dena den, entzuten dudana gehiena ez zait gustatzen.



Drogas, Txantreako bere etxean.

JOXE

Beltran, Delirium Tremens, Los del Rayo... Nola ikusten dituzu Nafarroako talde berriak?

DROGAS.— Ez ditut ikusten. Egia esateko azken bolada honetan ez naiz oso aditua gai horretan. Iruñean nagoenean 'socia' eta mukizuekin egotea gustatzen zait, eta 'txinora' oso gutxitan igotzen naiz. Aspaldidanik ez naiz taberna batean kontzertu bat ikusten egon, eta nik ez dakit, gainera ez dakit oraindik posible den horrelakorik egotea. Ez dut asko entzuten, dena den, entzuten

dudana gehienetan ez zait gustatzen. Talde berrien artean Los del Rayo ditut gustoko. Atera duten azken diskoa nik produzitu nuen.

EGUNKARIA.— Urtebeté pasa da 'Por instinto' diskoa grabatu zenuenetik. Noizko Barricadaren hurrengo diskoa?
DROGAS.— Ziur aski uztailan hasiko gara datorren diskoa grabatzen, oraindik ez daukagu argi. Orain gure lokala berritzen ari gara, eta bukatzen dugunean diskoa konposatzeari ekingo diogu.

NOSKI JATOR

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA



GOAZEN LAGUNAK AMETS BETEAN, MANDLON TXAPELAN BILA, ORAIN BADAKIT ZE ANTZOKIAN DAGOEN ALTXORRIK EDERRENA, LARA LARA !! LORAILO!



ZVLDI ERBA